



JOSE MARIA BASABE DOKTOREARI OMENALDIA

Eusko Ikaskuntzak 1978.an berriz hasi zituen 1936.an halabeharrez etenda gelditu ziren lanak. Hain denbora luzean neguko loaldian bezala zetzan zientzi-erakunde hau iratzartzeko gogo horri laguntzeko asmo sutsuak sortu ziren ikerlarien artean, baina baita, ezin ukatu, kontrako jarrera kritikoak ere.

Jose Maria Basabe Doktoreak, Euskal Herriko Unibertsitatean Antropologiako Katedraduna, lehenengotik eskaini zuen bere burua egitasmo horri gogorik beroenaz bultz eragiteko.

Eusko Ikaskuntzak 1979. ko Otsailaren 10ean egin zuen Donostian, Antropologia eta Etnografia Saila antolatu eta bideratzeko eratze-batzarra. Hogeita lau ikerlari batu ziren bertara, Basabe Doktorea ere bertan zela. Hasierako batzar hartan erakutsi zituen hark bere katedratik eragindako ikerlanak, eta horrezgain lan egitarau bat agertu ere bai. Egitarau hori izan da Sail honetako kideek Antropologia fisikoaren arloan handik aurrerantzean egin duten lanaren ardatza.

Urteotan zehar etengabea izan da Aita Basabek Eusko Ikaskuntzaren Sail hortan, batzar arruntetan edo nagusietan, eta batez ere ikerketarako egitasmo berriak bultzatze-orduan izan duen partaidetza. Edo idatziz edo zuzenean ahoz berak egindako hitzak beti izan dira eragingarriak. Bere erizpideak orekatuak eta era berean ikuspegi berriei zabalik. Gizontasun horrek eta bere jakituri zabalak benetako irakasle eta maisu bat erakusten zigun. Irakaste-lan emankor horri esker ikerlari belaunaldi berri bat agertu da. Bere ondokoetarikoko batzuren lanak agertzen dira orain ateratzen dogun ale honetan.

Bere heriotzearen albisteak ustekabeen arrapatu gintuen, Euskalerriko etnografia ikerketetarako ETNIKER lan-taldeen urtero egiten dugun batzarraren bezperan. Urte horretan Agurainen (Araba) egitekoa zen batzarrori. Topaketa horren hasieran Jose Migel Barandiarán, Eusko Ikaskuntzaren buru denari, zoritxarreko albiste hori jakinerazi zitzaionean, bihotz bihotzetik jakitako hitzak egin zituen. Hona hemen orduan esandakoa:

«Oraintxe berton eman didaten berri honek barru barruan ikutu nau.

Basabe Doktoareekin elkarlanean egin nituen Bizkaiko historiaurreari buruzko ikerketa batzuk. Hortatik, eta euskal antropologiaz zituen argitalpen batzuegatik ezagutzen nuen. Nik asko zor diot. Alde batetik, laguntzaile izan nuelako Bizkaian eginiko hainbat lanetan, eta bestetik, nire aitabitxi izan zelako Euskalerriko Unibertsitateak Doctor Honoris Causa izendatu ninduenean.

Zera esan nahi nuke: nire ikuspuntutik eta hari buruz nekienaren arabera, Euskalerriko antropologiari dagozkion ikerketetan behintzat, jakitunik handienetarikotzat izan nuela. Norabide argiko gizona, ikerketarako berezko gaitasuna zuena. Eta gaitasun hori gure Herriaren alde erabili zuen.

Guk hari omenaldi bat egiteaz gain, doluminik sentikorrenak bidali behar dizkiegu bere senitartekoei».

Euskal antropologia saileko berrogeita hamar bat ikerlari bildu zituen batzar hura, ustekabeen, Basabe Doktoareenganako omenaldi bihurtu zen.

Aita Basabek ikerketan eta irakaskuntzan egin duen ibilbide luze hortan eta bere bizitzan azkenengo pausuak dira Eusko Ikaskuntzaren Sail honetan izan duen partaidetza. Hori dela ta, Antropologia eta Etnografia Sailak, Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorraz batera, Koadernu bat bere gorazarrez ateratzea erabaki zuenean, bere lana ezagutu edo Unibertsitate ezberdinetan irakaskuntzan edo ikerketan lankide izan zituen katedratiku eta iker-tzaileen laguntza eskatu zuen.

Eusko Ikaskuntzak bere esker ona erakutsi nahi die guztioi, baita Sail barrukoei ere kuaderno honetarako bidali dituzten lanongatik, eta batez ere Isolina Bennassar-i, Basabe Doktoareaz egin duen biografi eta bibliografi txostenagatik. Lan horrekin hasten gorazarre argitalpen hau.

*Antropologia eta Etnografia Sailburua
Gurutzi de ARREGI Y AZPEITIA*